

Liburu berria kalean: “Euskal Herritik nazioarteari so eginez”, HEIS elkarteak argitaratua

2007/05/16

2006ko apirilaren 27an eta 28an jardunaldi batzuk egin ziren HUHEZI fakultatean, Eskoriatzan: “**Herri eskubideak, autodeterminazioa eta mundu gobernantza**”, HEIS elkarteak (Herri Eskubideen Ikasgunea Sortzen) eta **HUHEZIK** berak antolatuta. Urtebete geroago HEIS elkarteak liburu bat argitaratu du, eta bertan jasotzen ditu jardunaldi haietan irakurritako ponentziak.

Ponentziak

Sarrera bat eta zortzi ponentzia jasotzen ditu liburuak, 214 orrialdetan.

- Joseba Mikel Garmendia: Gobernatze instituzionala nazioarteko orden ekonomikoan.
- Alexander Ugalde Zubiri: El papel de las entidades no centrales en el espacio multinivel de la gobernanza europea.
- Alejandro Teitelbaum: Naciones Unidas: ¿Reformarla o reconstruirla?
- Jaume Renyer: El derecho de autodeterminación en el siglo XXI.
- Jesús Romero Trillo: El papel de la Comunidad de Sant'Egidio en la resolución de conflictos y en la búsqueda de los derechos de las personas.
- Amaia Andrieu Sanz: Genero dimentsioa gatazken konponbidean.
- Verena Graf: Estudio comparado de resolución de conflictos: Sri Lanka/Alto Karabah/Kosovo.
- Natalia Alvarez Molinero: Uso de la fuerza, ansiedad ética y el derecho a preguntar en Derecho Internacional: una retrospectiva sobre Kosovo.

Helburuak

Jardunaldi haien helburuak izan ziren Euskal Herritik hurbiltzea mundu gobernantzari eta botere banaketari, jakitea nazioartean “ez zentralak” diren erakundeek zer parte hartze politiko eta gaitasuna duten inguruan eragiteko, eta interesa sustatzea Euskal Herriko komunitate akademikoan.

